

EUSKO LEGEBILTZARREKO  
LEHENDAKARIAREN ADIERAZPENA

Ertzainek azken aste hauetan jasandako erasoak direla-eta, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak HAU ADIERAZTEN DU:

1.- Bere elkartasuna eta esker ona eskaintzen dizkiela ertzain guztiei, egunero euskal herritar guztion segurtasuna babesteagatik, eta gure eskubide eta askatasun demokratikoak oztoporik gabe baliatzea ahalbidetzeagatik.

2.- Ertzainei eta beren familiei bere estimua agertzen diela, azkenaldi honetan terroristek haien ondasunei eta askatasunari eraso egin baitiete.

3.- Terrorismoa erabat gaitzesten duela, baita bera erabili, babestu edo zuritzen dutenak ere, eta konpromisoa hartzen duela askatasunaren mesedetan, terrorismoa ekonomian, gizartean eta politikan deslegitimatzearen alde, ETAREN aurka eta balio demokratikoen alde lan egiten jarraitzeko.

Gasteizen, 2009ko ekainaren 18an

DECLARACIÓN DE LA PRESIDENCIA DEL  
PARLAMENTO VASCO

Ante los ataques sufridos por agentes de la Ertzaintza en las últimas semanas, la Presidencia del Parlamento Vasco MANIFIESTA:

1.-Su solidaridad y reconocimiento a la labor realizada por todos y cada uno de los agentes de la Ertzaintza en su tarea diaria en defensa de la seguridad de todos los vascos y del libre ejercicio de sus derechos y libertades democráticos.

2.- Su afecto y estima a los agentes, así como a sus familias, que en las últimas fechas han visto atacadas sus propiedades y su libertad por los terroristas.

3.-Su rotundo rechazo al terrorismo, a quienes lo practican, lo apoyan o lo disculpan, así como su compromiso para seguir trabajando por la libertad, por la deslegitimación ética, social y política del terrorismo, y contra ETA, en defensa de los valores democráticos.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de junio de 2009

